


2023KO BIZI-BALDINTZEI BURUZKO INKESTAKO DATU NAGUSIEN LABURPENA - EUSKADI

1. EUSKAL FAMILIEN EZAUGARRI SOZIOEKONOMIKOAK


1.1. Pobrezia edo gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden 0-17 urteko pertsonak (AROPE). Euskadi BBI 2023

%100



1.2. Pobrezia-arriskuan dauden 0-17 urteko pertsonak. Euskadi BBI 2023

%100




OHAR TEKNIKOAK


1. Datuak ateratzeko erabili den informazio-iturria INEren Bizi Baldintzei buruzko Inkesta da. Emandako informazioa 0-17 urteko pertsonen egoera espezifikorako mugatuta dagoenez gero, INEk adierazi du laginak adierazgarritasun-arazoak izan ditzakeela autonomia-erkidegoen arabera zenbait datutan. 2. INEren Biztanleria Erroldaren datuen arabera, 2023an 0-17 urteko 350.318 pertsona bizi ziren Euskadin; hau da, autonomia-erkidego horretako biztanle guztien % 15,8. 3. AROPE tasak honako hiru egoera hauetakoren batean dauden biztanleen proportzioa adierazten du: – Pobrezia-arriskua – Gabezia material eta sozial larria – Lan-intentsitate txikia Pobrezia-arriskuak urteko guztizko errenta baliokidea Espainiako errenta baliokidearen medianaren % 60 baino txikiagoa duten etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa adierazten du.	Pobrezia-arriskua bi modutara kalkulatu da: Estatuko atalasetik abiatuta eta autonomia-erkidego bakoitzeko atalasetik abiatuta. Estatuko atalasea BBIn lagin osoko diru-sarrerara baliokideen banaketaren mediana kontuan hartuta lortzen dena da; Autonomia Erkidegoko atalasea kalkulatzeko, berriz, autonomia-erkidego bakoitzeko diru-sarreraren banaketa baino ez da kontuan hartu. Euskadin, pobrezia-arriskuaren atalasea 29.312 eurokoa da urtean, bi helduk eta 14 urtetik beherako bi haurrek osatutako etxe baten kasuan. Espainia osoan, berriz, 23.078 eurokoa da urtean. Gabezia material eta sozial larriak 13 osagai ditu; haietako zazpi etxe-mailakoak dira, eta sei, berriz, pertsonalak, etxeko kide bakoitzarentzat desberdinak. Pertsona bat gabezia material eta sozial larriko egoeran dago zerrenda osatzen duten 13 mugetatik gutxienez zazpi jasaten ditunean. Etxe-mailan zehaztutako zazpi kontzeptuak honako hauek dira:	– Ezin da oporretara joan urtean astebetez gutxienez. – Ezin du etxebizitza tenperatura egokian eduki. – Ez du ahalmenik ezusteko gastuei aurre egiteko. – Etxebizitza nagusiari lotutako gastuen ordainketan (hipoteka edo alokairua, gas-ordainagiriak, komunitatea eta abar) edo epekako erosketetan atzerapenak izan ditu azken 12 hilabeteetan. – Ezin du automobil bat eduki. – Ezin ditu ordeztu altzari hondatuak edo zaharrak. Bestalde, pertsona-mailan zehaztutako sei kontzeptu berriak honako hauek dira: – Ezin du hondatutako arropa beste berri batekin ordeztu. – Ezin ditu egoera oneko bi zapata pare eduki. – Ezin da lagunekin/senideekin geratu bazkaltzeko edo zerbait hartzeko hilean behin gutxienez.	– Ezin du aisia-jardueretan aldizka parte hartu. – Ezin du diru kopuru txiki bat gastatu beretzat. – Ezin du Internetarako konexiorik eduki. 16 urtetik beherakoaren kasuan, elementu horien balioak 16 urte edo gehiago dituzten etxeko kideen kasuan jasotako balioetatik abiatuta ateratzen dira. Lan-intentsitate txikiak lan egiteko adinean dauden kideek (18-64 urteko pertsonak, honako hauek izan ezik: 18-24 urteko ikasleak, erretirodunak eta etxeko diru-sarreraren iturri nagusi gisa pentsioak dituzten 60-64 urteko pertsona ez-aktiboak) beren lan-ahalmen osoaren % 20tik beherako proportzioan lan egin duten etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa neurtzen du. Aldagai hori ez da aplikatzen 65 urteko eta gehiagoko pertsonen kasuan.
---	--	---	--

1. EUSKAL FAMILIEN EZAUGARRI SOZIOEKONOMIKOAK


1.3. Gabezia material eta sozial larria duten 0-17 urteko pertsonak. Euskadi BBI 2023




1.5. AROPE tasaren eta osagaien konparazioa 0-17 urteko pertsonen eta biztanle guztien artean. Euskadi BBI 2023



1.4. Lan-Intentsitate txikiko etxeetan bizi diren 0-17 urteko pertsonak. Euskadi BBI 2023




1.6. AROPE tasaren eta osagaien konparazioa 0-17 urteko pertsonen artean. Euskadi eta Espainia BBI 2023




1. EUSKAL FAMILIEN EZAUGARRI SOZIOEKONOMIKOAK


1.7. Gabezia materialaren hainbat adierazleren konparazioa 0-17 urteko pertsonak dituzten etxeen eta etxe guztien artean. Euskadi BBI 2023




1.8. Gabezia materialaren hainbat adierazleren konparazioa 0-17 urteko pertsonak dituzten etxeen artean. Euskadi eta Espainia BBI 2023



1.9. S80/S20 ratioaren bilakaera 0-17 urteko pertsonen eta biztanle guztien kasuan. Euskadi BBI 2015-2023




1.10. S80/S20 ratioaren bilakaera 0-17 urteko pertsonen kasuan. Euskadi eta Espainia BBI 2015-2023




Oharra: S80/S20 ratioa edo koizientea diru-sarreraren banaketan dagoen desberdintasuna neurtzeko erabilirik dagoen adierazlerik ohikoenetako bat da. Errentarik handieneko biztanleriaren % 20k (kintilik altuenak) lortutako batez besteko errentaren eta errentarik txikieneko biztanleriaren % 20k (kintilik baxuenak) lortutako batez besteko errentaren arteko erlazioa adierazten du. 0-17 urteko biztanleen S80/S20 ratioa kalkulatzeko, biztanleria-tarte horri dagozkion diru-sarrera baliokideak baino ez dira kontuan hartzen.

2. DATUEN BILAKAERA


2.1. AROPE tasaren eta osagialen bilakaera 0-17 urteko pertsonen kasuan. Euskadi BBI 2015-2023




2.2. AROPE tasaren bilakaera 0-17 urteko pertsonen eta biztanle guztien kasuan. Euskadi BBI 2015-2023



2.3. AROPE tasaren bilakaera 0-17 urteko pertsonen kasuan. Euskadi eta Espainia BBI 2015-2023



2.4. Gabezia material eta sozial larriaren tasaren bilakaera 0-17 urteko pertsonen kasuan. Euskadi eta Espainia BBI 2015-2023



3. DATUEI BURUZKO ZENBAIT OHAR

- **Euskadiko haur eta nerabeen % 18,8 (ia 65.700 pertsona) pobrezia edo gizarte-bazterketa jasateko arriskuan daude (AROPE tasa).**
Euskadin, tasa hori Espainia osoan 18 urtetik beherako pertsonen dutena (% 34,5) baino portzentajezko 15,7 puntu txikiagoa da.
- **Euskadin, 18 urtetik beherako pertsonen % 13,7 (48.200 pertsona inguru) pobrezia-arriskuan daude.**
Horrek esan nahi du pertsona horiek Espainia osoko (Estatuko atalasea) batez besteko errenta baliokidearen % 60tik beherako diru-sarrera baliokideak dituzten etxeetan bizi direla. Erreferentzia gisa Estatuko atalasearen ordez Autonomia Erkidegoko atalasea hartuz gero, Euskadiko haur eta nerabeen pobrezia-arriskuaren tasa 20,1ekoa da, eta 70.300 pertsona inguru hartzen ditu eraginpean.
- **Euskadiko adingabeen % 7,2 (25.100 pertsona inguru) gabezia material eta sozial larria duten etxeetan bizi dira.**
Ikuspegi konparatu batetik, tasa hori Espainia osokoa (% 12,3) baino txikiagoa da.
- **Gabezia-egoerak askotarikoak dira adingaberen bat duten etxeetan.**
Euskadin, egoera horien prebalentzia honako hau da 18 urtetik beherako pertsonak dituzten etxeetan:
 - Etxe horien ia laurdenak (% 24,2k) ez du ahalmenik ezusteko gastuei aurre egiteko.
 - % 21,1 ezin da oporretara joan urtean astebetez gutxienez.
 - % 14,1ek atzerapenak izan ditu etxebizitza nagusiari lotutako gastuen ordainketan edo epekako erosketetan.

- % 12,9k ezin du etxebizitza tenperatura egokian eduki.
- % 3,8k ezin du haragi, oilasko edo arrainik (edo baliokiderik, begetarianoen kasuan) jan gutxienez bi egunean behin.

EAEko etxe guztiekin alderatuta, alderik handienak etxebizitza nagusiari lotutako gastuen ordainketan edo epekako erosketetan izandako atzerapenei dagokien adierazleak agertu dira. Arazo horrek adingabeak dituzten etxeen % 14,1 hartzen ditu eraginpean, eta proportzio hori EAEko etxe guztiena baino portzentajezko 5,2 puntu handiagoa da (% 8,9 EAE osoan).

18 urtetik beherako adingabeak dituzten EAEko etxeen datuak eta Espainia osoko etxeenak alderatzen badira, alderik handienak urtean gutxienez astebetezko oporrak hartu ezin izateari eta ustekabeko gastuei aurre egiteko ahalmenik ezari lotutako adierazleetan agertzen dira. Azken kasu horretan, arazo horrek 18 urtetik beherako pertsonak dituzten etxeen % 24,2 hartzen ditu eraginpean Euskadin, eta % 41,9 Espainian.

- **Euskadin, 18 urtetik beherako pertsonen % 4,3 (14.900 pertsona inguru) lan-intentsitate txikiko etxeetan bizi dira.**
Pertsona horiek bizi diren etxeetan, lan egiteko adinean dauden kideek beren lan-ahalmen osoaren % 20tik beherako proportzioan lan egin dute. Espainian, tasa hori % 6,9ra iritsi da, eta, beraz, Euskadiko tasa baino portzentajezko 2,6 puntu handiagoa da (% 4,3 Euskadin).
- **Euskadiko 0-17 urteko pertsonen AROPE tasa (% 18,8) autonomia-erkidego horretako biztanle guztiena (% 15,5) baino handiagoa da.** Era berean, handiagoak dira pobrezia-arriskuaren tasa (% 13,7 18 urtetik beherako pertsonen kasuan, eta % 10,2 biztanle guztien kasuan) eta gabezia material eta sozial larriaren tasa (% 7,2 18 urtetik beherako pertsonen kasuan, eta % 5,6

biztanle guztien kasuan). Lan-intentsitate txikiaren tasa, berriz, txikiagoa da 18 urtetik beherako pertsonen kasuan EAEko biztanle guztien kasuan baino (% 4,3 eta % 7,6, hurrenez hurren).

- **EAEko haur eta nerabeen AROPE tasak behera egin du zertxobait 2022-2023 aldian.**
Tasaren hiru osagaien artean, beherakadarik handiena izan duena pobrezia-arriskua da. 2022tik 2023ra bitarte, Euskadiko pobrezia-arriskuaren tasa % 17,8tik % 13,7ra jaitsi da. Gabezia material eta sozial larriaren tasa eta lan-intentsitate txikiarena, berriz, oso neurri txikian aldatu dira. Gabezia material eta sozial larriaren tasa portzentajezko 0,7 puntu igo da, eta lan-intentsitate txikiarena, berriz, 0,8 puntu jaitsi da. Hiru adierazle horiek izan duten bilakaeraren ondorioz, AROPE tasak portzentajezko 1,6 puntuko beherakada izan du EAEko haur eta nerabeen kasuan, eta % 20,4tik % 18,8ra jaitsi da 2022-2023 aldian.
- **Euskadiko biztanle guztiei dagokien S80/S20 ratioa 5 da, eta 18 urtetik beherako biztanleena, berriz, 5,5.** Beraz, adierazle horren arabera, haur eta nerabeen kasuan diru-sarreraren banaketan dagoen desberdintasuna biztanle guztiei dagokiena baino handixeagoa da.

4.

2024-25 ALDIKO ANALISIA ETA GOMENDIOAK

Euskadin, 5 haurretik 1 inguru (ia 65.700 haur) pobrezia edo gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dago (AROE), AROE tasa 2022ko ehunekoarekin alderatuta portzentajezko 1,6 puntu jaitsi bada ere. Euskadin, pobrezia edo gizarte-bazterketa jasateko arriskua handiagoa da haurren kasuan biztanle guztien kasuan baino. Diru-sarrerei dagokienez atzean geratzen ari diren haurrek arrisku handiagoa dute beste esparru batzuetan ere atzean geratzeko, hala nola osasunean edo hezkuntzan. Haurrengan agertzen den desperekotasun horrek eragina du haien bizitzan eta garapenean, baina, epe ertain eta luzera, euskal gizarte osoaren ongizatean ere eragina du, eta ongizate hori arriskuan jartzen du.

Arazoa ez da haurren pobrezia buruzko datu kezkarrietara mugatzen. Horrez gain, seme-alabak edukitzea arrisku- eta babesgabetasun-faktore bihurtzen ari da haurrentzat eta haien familientzat. Seme-alabak kargura dituzten familiek neurri handiagoan pairatzen dituzte lanbide-aukerarik eza, lan-baldintzen okerragotzea eta etxebizitza lortzeko arazoak. Haurrengan inbertitzeak zuzeneko eragina du helduaroan izango dituzten gaitasun eta aukeretan, eta lan-prekaritateaz eta diru-sarrerengabekiaz babesten ditu familiak haurrak hazteko garaian.

Haurrengan inbertitzea zentzuzko aukeraketa ekonomikoa da, eta onuragarria da biztanleria osoarentzat. Izan ere, garapen ekonomikoa eta soziala sustatzen du, produktibitatea, hazkunde ekonomikoa eta gizarte-kohesioaren mailak handitzen baititu. Ez jardutea haurrentzat eta familiarik kalteberenentzat kaltegarria izateaz gain, gizarte osoaren hazkundera eta ongizatean jartzen ditu arriskuan epe ertain eta luzera.

Krisi-egoeretan, haurren pobrezia-mailak gainerako biztanleentzat baino bizkorrago igotzen dira, baina motelago jaisten dira egoera ekonomikoa hobetzen denean.

Hori guztia dela eta, UNICEF Euskal Herriko Batzordeak honako hauek proposatzen ditu:

HAURREN ESKUBIDEEN IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN

1. Haurtzaroari lotutako **politika publikoen diseinuan Haurren Interes Gorenaren printzipioa txertatzea**, eta Autonomia Erkidegoko gobernuak haurrentzat garatutako gizarte-ekintzaren, hezkuntzaren eta osasunaren arloko politika publikoetan haurren eskubideen ikuspegia txertatzeko aukera erraztea.
2. **Haurrek eta nerabeek** eraginpean hartzen dituzten gaitan erabakiak hartzeko zeharkako ardatz gisa **parte-hartze erreala izateko aukera bultzatzea**, eta beharrezkoak diren espazioak eta mekanismoak antolatzea, eskubideen titular gisa ez ezik, eraldaketa sozial eta politikorako funtsezko eragile gisa ere bai.
3. Gure Autonomia Erkidegoko **haurren egoera sakonean ezagutzea** eta, horretarako, eremurik kalteberenei buruzko azterketak, mapaketak eta analisiak egitea, haurren ongizatea eta eskubideak bermatzeko plangintza-prozesu egoki, bideratu eta efiziente bat egitea ahalbidetuko duten kalitateko datuetan oinarrituta diagnostiko zehatz bat egin ahal izateko.
4. Ahalik eta mailarik handieneko instantzia politiko baten bidez **koordinazio-mekanismo batez hornitzea eta mekanismo hori indartzea**. Mekanismo horrek haurtzaroari lotutako politiken ikuspegi orokor bat izango du, haurrak modu integralean hartuko ditu aintzat, haien interesak lehenetsiko ditu, eta eragile guztien arteko interakzio egokiaz arduratuko da, haien eta familien bizitzan aldaketak errazteko.

INBERTSIO HANDIAGOA ETA EFIZIENTEAGOA HAURTZAROAN

5. **Haurrak eta nerabeak, aurrekontu-lehentasuna politika publikoetan.**

6. **Urteko aurrekontu bakoitzean haurrei zuzendutako gutxieneko inbertsioen inguruko adostasun politiko eta soziala lortzea**, inbertsio hori nahikoa eta egokia izango dela bermatzea, aldaketa politiko eta ekonomikoen aurrean blindatzea eta haren jasagarritasuna bermatzea.
7. **Haurrak kontuan hartuko dituzten aurrekontu-analisiak egitea**, eta gastuaren orientazioa eta haren banaketa sektoriala, inaktua eta eraginkortasuna ebaluatzea ekitateari dagokionez, Autonomia Erkidegoan eta toki-mailan, eta zeharka.

HAURRAK ERDIGUNEAN JARRIKO DITUEN GIZARTE-BABESA

8. **Haurren pobrezia eta desperekotasunari aurre egiteko gizarte-babeseko mekanismoak ezartzea**, eta funtsezko alderdiak kontuan hartzea, hala nola genero-berdintasuna, desgaitasuna duten haurrak eta jatorri migratzaileko, gutxiengo etnikoetako edo gizarte-egoera ahuleko taldeetako haurrak.
9. **Seme-alabak dituzten familiei, guraso bakarreko familiei eta, bereziki, emakume bat buru dutenei babes berezia ematea**, eta haien lan-trebakuntza eta lanbide-prestakuntza hobetzeko neurriak indartzea.
10. **Gizarte-babeseko neurriak indartzea, seme-alabak dituzten familien enpleguari eta diru-sarrerei eutsi ahal izateko.**

Estaldura handiko neurriak, Estatuko prestazioen osagarriak, haiek lortzeko baldintzak murriztuz eta oztupoak saihestuz, etxerik kalteberenetara eraginkortasunez irits daitezten.

11. **Bizigarritasun-baldintza egokietan dagoen etxebizitza bat eskuratzeko eta mantentzeko aukera erraztea eta seme-alabak dituzten etxeak bereziki kontuan hartzea**, alokairuko etxebizitzan jarraitzeko aukera erraztera bideratutako neurriak barnean hartuta, arrazoizko prezioa duen etxebizitza baten zuzkiduraren eta errenta ordaintzeko laguntzen bidez.

4.

2024-25 ALDIKO ANALISIA ETA GOMENDIOAK

12. Familia- eta lan-kontziliazioko zerbitzuak eskuratzeko bidezko aukera, guraso edo legezko tutore guztiak etxetik kanpo lanean dituzten familietan langileak kontratatzeko ordainsari-laguntzak barnean hartuta.

13. Haur kalteberentzat funtsezkoak diren zerbitzuak eskuratzeko aukera bermatzea (hezkuntzaren, nutrizioaren, osasunaren eta etxebizitzaren arloetan), haurren pobrezia aurre egitea, Europako Haur Bermea Euskadin ezartzen dela ziurtatzea eta, horretarako, Autonomia Erkidegoko plan operatiboa garatzea eta haren jarraipena egitea, toki-esparruarekin koordinatuta.

HAUR BAKOITZARI ETXEBIZITZA BAT BERMATzea

14. Alokairu-etxebizitzaren parke publikoak haurrak dituzten familientzako baldintza egokiak betetzen dituela ziurtatzea.

15. Haurrak eta nerabeak non eta nola bizi diren adierazten duten datuak hobetzea, eta haurren parte-hartzea gehitzea.

16. Autonomia Erkidegoko araudian haurrenganako eta haien familienganako “arreta berezi” kontzeptua garatzea, etxebizitza eskuratzeko programetan haurrak dituzten eta kalteberatasun-arriskurik handieneko egoeran dauden familiak kontuan har daitezen, beste zenbait neurriren artean.

BABESA, HEZKUNTZA, OSASUN MENTALA ETA ESKUBIDE DIGITALAK

17. Haurren aurkako indarkeria prebenitzeko eta hari erantzuteko ahaleginak egitea funtsezko hainbat zerbitzuren bidez. Zerbitzu horietan, bereziki garrantzitsua da zerbitzu integralen finantzaketa egokia esleitzea, hala nola haurren babesari, familia-garapenari, hezkuntzari, osasunari eta

babes-faktoreen inguruan lan egitea eta esku-hartze eraginkorrak garatzea ahalbidetuko duten gizarte-babeseko beste egitura batzuei lotutako zerbitzuena.

18. Babes-sisteman beharrezkoak diren neurriak, mekanismoak eta baliabideak areagotzea, inklusioa eta helduarora igarotzeko trantsizioa ardatz hartuta, eta familia-harrera sustatzea, dauden beharrei eman beharrek erantzun egokia ziurtatzeko (bereziki bakarrik dauden haur migratzaileen kasuan) eta koordinazioa hobetzeko, tutoretzapeko haur guztiek beren eskubide guztiak (parte hartzeko eskubidea barne) balia ditzaten.

19. Kalteberatasunik handieneko egoeran dauden haurren hezkuntza-inklusioa lortzeko beharrezkoak diren baliabideak ziurtatzea, hala nola gizarteratze urria duten, hezkuntza-premia bereziak dituzten edo desgaitasunak dituzten haurren (atzerritar jatorriko haur iritsi berriak barne) hezkuntza-inklusioa lortzeko beharrezkoak direnak.

20. Ikastetxeak haurrak babesten dituzten ingurune bihurtzeko beharrezkoak diren baliabideak bermatzea ekintzak gauzatzean.

Ongizate eta Babeseko koordinatzailearen eta Babeseko ordezkariaren funtzioak indartzea/garatzea ikastetxe eta kirol-zentro guztietan, LOPIVI Legeak xedatzen duenari jarraikiz.

21. Haur eta nerabeen osasun mentalaren inguruan aurrekontu-zuzkidura izango duen Autonomia Erkidegoko ekintza-plan espezifiko bat garatzea, prebentzioko, detekzio goiztiarreko, sustapeneko eta arretako zerbitzuak barnean hartuko dituen, ikuspegi multisektorial, komunitario eta psikosozialean oinarritua, eta kolektiborik kalteberenen eskubide digitaletan aurrera egitea eta, ildo horretan, haien parte-hartze aktiboa bultzatzea, haurtzaroaren eta ekitatearen ikuspegia barnean hartzea eta Interneten eta informazioaren, harremanen eta komunikazioaren teknologien erabilera seguru eta arduratsu baterako beharrezkoak diren prestakuntzaz eta laguntzaz arduratzea.

EUSKADIKO 2/2024 LEGEA, OTSAILAREN 15EKOA, HAUR ETA NERABEENA

Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legearekin, haurrak eta nerabeak, zaintza- eta babes-xede ez ezik, **eskubide osoko subjektu** ere badira, eta gizarte demokratikoago eta parte-hartzaileago baten eraikuntzan aurrera egin da, eskubideen erabilera biztanleriaren funtsezko sektore batera zabaltzen baitu Legeak, hots, haurren eta nerabeen sektorera.

Legeak mugari garrantzitsua ezarri du haurren eta nerabeen eskubideak baliatu eta bermatzeko erantzukizun kolektibo eta koordinatuari dagokionez, eta **haurren eta nerabeen interes gorenaren lehentasuna** aitortzen du. Printzipio horrek ongi integratuta egon beharko du haurrak zuzenean edo zeharka eraginpean hartzen dituen arau-garapen, proiektu, programa edo jarduera orotan.

Legeak haurren eta nerabeen sustapena (maila guztietan) eta lege-proiektu guztietan haurren gaineko eraginari buruzko txostenak izateko nahitaezotasuna jasotzen ditu.

Testuak, halaber, babes-mekanismo hobeak ezarri, ingurune seguruak sustatu eta estaldura eta prestazio handiagoak bermatuko ditu. Gainera, **“babesgabetasunarekiko zaurgarritasunaren”** (edo kalteberatasunaren) definizioa sartzen du, eta, era horretan, babesgabetasuna agerikoa izan aurreko prebentzio-ekintzako eta detekzio goiztiarreko tresna batez hornitzen du legeria-esparrua. Hori, nolahi ere, aurrerapen handia da Euskadiko haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko zereginen.

Eta legeak modu eraginkorrean inplementatu ahal izango dela ziurtatzeko aurrekontu-esparrurik ezartzen ez badu ere, aitortzen duen **aurrekontu-lehentasuna** interpretatu behar dugu haurrak eta nerabeak ardatz izango dituzten erabakiak hartzeko. Horretarako, baliabide ekonomikoak zein giza baliabideak behar ditugu.